# GUGGENHEIM BILBAO

**SNACK** horma-irudi honek hodei itxurako gaileten bidez Guggenheim Bilbao Museoaz gozatzeko aukera eskaintzen dizu, eta Bilduma Iraunkorreko artelanekin jolasteko ideiak ere ematen dizkizu.

Hodeietako batzuetan, irudimena aske utzi hegalari, SNACK hau izan dadin zure etxeko apaingarri.

- **Museorako sarrera**
- **Informazioa**
- **Txarteldegia**
- **Arropazaindegia**
- **Komunak**
- **Haurtxoentzako alda-mahaia**
- **Ezinduentzako eta haurkotxeetarako egokitua**
- **Igogailua**
- **Jatetxea**
- **Taberna**
- **Denda-Liburudenda (haurrentzako produktuekin)**
- **Sendagela**

LAGUNDU ARTEA BABESTEN:

- **Ez ukitu ez zapaldu artelanak**
- **Gorde segurtasun-tartea**
- **Ahal dela, zoaz nagusi bati eskutik helduta**













BeirazKo
Kapsuletan sartu
eta... pasabideetatik,
Atrio erraldoiaz gozatu.


·BEIRA
·HARRIA eta
·TITANIOA
Bilatu non ukitu
ditzaKezun hirurak batera,
baina Kontuz! Ez irten Kalera!


JENNY HOLZER
Jarraitu lehenari,
zutabeen artean barrura eta
Kanpora sigi-saga bi, nire gorputza
aztoratzen dabil,
barruan urdin, Kanpoan gorri,
eraldatzen dut artelana,
artelanak eraldatzen nau ni.


RICHARD SERRA
Inurrien urratsak eta
elefanteen oinatsak,
gure Museo dotorearen
"SUGEA" aurKitzeko
ez dira bide latzak.


IDI-BIHOTZAK
JEFF KOONS
Bilatu distirak
beren ispiluetan,
eta inguruko mundua
lehertuko da Koloretan.
Kolorez betetzen badira
indarrez
egiten dute distira.


LOUISE BOURGEOIS
Jolastu "Ama"-rekin:
- 8 hanKatxotan
- arrautzak bilatzen
- zeinen sendoa den frogatzen...
Nire arrautzetatik sortu
dira armiarmatxoak...
egingo dituzu haien
marrazKitxoak?